Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

HAURRESKOLAK

DONOSTIAKO UDALAREN ETA HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN ARTEKO ELKARLANERAKO PROTOKOLO OROKORRA, DONOSTIAN, HAUR HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOAN, 0 ETA 2 URTE TARTEAN, PLAZA BERRIAK SORTZEARI BEGIRA ELKARLANERAKO ILDOAK FINKATZEKO DENA.

Donostian, 2010eko Abuztuaren 2an

BILDURIK

Alde batetik, Odón Elorza González jn.a, Donostiako Udaleko alkate-burua

Eta bestetik, M. Isabel Celaá Diéguez, Haurreskolak Partzuergoko burua

AGERTZEN DIRA

Lehenengoa, Donostiako Udaleko alkate-buru den aldetik

Bigarrena, Haurreskolak Partzuergoko buru den aldetik

Agertzen direnek elkarri aitortzen diete elkarlanerako protokolo hau sinatzeko nahikoa eta beharrezkoa den lege-gaitasuna dutela, eta, ondorioz, honako hau

AZALTZEN DUTE

Lehenengoa.- Alderdi horien nahia da Haur Hezkuntzako 0 eta 2 urte bitartekoentzat plaza berriak, adin horietako seme-alabak dituzten Donostiako familientzat izango direnak, sortzeari begira elkarlanerako ildoak finkatzea. Hori guztia, funtsezko ardatz hauen inguruan egingo da:

- Udalerrian 0 eta 2 urte bitartekoentzat dagoen plaza-eskaintza egokitu eta gehitzea.
- 0 eta 2 urte bitartekoentzat kalitate handieneko hezkuntza-eskaintza lortzea, dauden instalazioak indarreko araudiari egokituz eta eskaintzarik gabeko eremuetan ikastetxe berriak eraikiz.
- Elkarlanerako bide sistematikoak ezartzea, egun dauden eta sortu berriak diren haurreskolen kudeaketa hobetzen jarraitzeko.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

HAURRESKOLAK

- Haurreskola desberdinen artean eta ondorengo ziklo edo etapak ematen dituzten ikastetxeekiko pedagogia-koordinazioa sustatzea, 0 eta 2 urte bitartekoen tarteari begira.
- Ikasleak eremu honetako ikastetxe publikoetan jarraitzearen alde jardutea, eta horrela ikasleen prestakuntza-ibilbideari koherentzia eta jarraitasuna ematea.

Bigarrena.- Indarrean dagoen araudiak herri-administrazioentzat mandatu orokorra ezartzen du, gai honen inguruan koordina daitezen. Euskal Eskola Publikoari buruzkoa den otsailaren 19ko 1/1993 Legean, 9. artikuluan, ezarrita dago hezkuntza-administrazioak eskatzen duten guztiak arian-arian zero urterekin eskolatzea ezarriko duela, gainerako administrazioekin eta gizarteko eragileekin lankidetzan.

Hirugarrena.- Protokolo hau sinatzen duten administrazioek, beren aldetik, zenbait programa garatu dituzte, adierazitako lege-mandatuak bete daitezen. Hori horrela, Donostiako Udalak hezkuntza-arreta eskaintzen dio lehen haurtzaroari eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin koordinatuta, lan hori egiten jarraitzeko gogo bizia berresten du.

Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Eusko Jaurlaritzak asmatutako erakunde arteko II. planak (2006-2007), bere aldetik, tokiko administrazioen jarduera bultzatzen du, bere jarduera-ardatzen artean, eta plan hori burutzeko erakunde artekotasuna eta lankidetza oinarrizko piezak direla adierazten du. Zehazki esanda, 4. estrategia-ildoak ("Familiei laguntzeko zerbitzuak") 4.2 zenbakiko neurrian, "Hiru urtetik beherakoentzako haur-eskolak" izenekoan, barne hartzen ditu udalak, horretarako eskumena duten erakundeak baitira.

Laugarrena.- Hori dela eta, gaiarekin zerikusia duen alderdi bakoitzaren eskumen-mailak beti errespetatuz, honako hau

HITZARTZEN DUTE

Lehenengoa.- 0 eta 2 urte bitartekoentzat haurreskolak sortzea, jadanik dauden ikastetxe publikoetan kokatuko direnak. Alde horretatik, Donostiako Udalak, indarrean dagoen araudiari jarraituz, ondorengo ikastetxeetan haurreskolak sortzeko espazioak egokitzea sustatuko du, jarraian aipatzen den aldi baterako programazioarekin bat etorriz:

- **Amara-Berri LHI, Urbieta** eraikinean: haurreskola sortzea, 0-1 urtekoentzako 2 unitaterako eta 1-2 urtekoentzako 3 unitaterako edukiera izango duena. Horretarako, Udalak indarrean dagoen araudiari egokituko dizkio beharrezkoak diren espazioak. Haurreskola honek, Prim kaleko Udal Haur Eskolan eskolatuta dauden 21 haurrak (0 eta 1 urte bitarteko 8 eta 1 eta 2 urte bitarteko 13) hartuko ditu . Lan hori 2011ko urtarrilarako bukatuko da gutxi gorabehera.

- **Amara-Berri LHI, Arizti-Gain** eraikinean: haurreskola sortzea, eraikinaren beheko solairuko ipar hegalean (220 m2 inguruko azalera), 0-1 urtekoentzako unitate baterako eta 1-2 urtekoentzako 2 unitaterako edukiera izango duena. Lan hori 2010eko irailerako bukatuko da gutxi gorabehera.

- **Aiete LHI:** Hezkuntza Sailak aurreikusia du Puio-Lanberri auzoan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bat eraikitzea. Donostiako Udalak haurreskola sortzeko proiektu horretan parte hartuko du, eta haurreskola horrek 0-1 urtekoentzako unitate baterako eta 1-2 urtekoentzako unitate baterako edukiera izango du. Lan hori 2014ko irailerako bukatuko da gutxi gorabehera.
  Instalazio horiek haur-eskola moduan erabiliko dira, betiere Donostiako eta, zehazki, haur-eskola horiek kokatuta dauden eremuetako eskolatze-premien arabera.

Bigarrena.- Haurreskola berriak sortu eta eraikitzea

Donostiako Udalak 0 eta 2 urte bitartekoentzat haurreskola berriak sortu eta eraikiko ditu, jarraian aipatzen diren toki eta epeetan, geroago Haurreskolak Partzuergoak kudea ditzan:

- Egia auzoan, Aitor ikastolak Karmengo Ama 70ean aldi baterako erabiltzen dituen lokaletan haurreskola sortzea, 0-1 urtekoentzako unitate baterako eta 1-2 urtekoentzat unitate baterako edukiera izango duena. Lan hori 2010eko irailerako bukatuko da gutxi gorabehera.
- Antiguako auzoan, Montpellier deritzan orubean, haurreskola sortzea, 0-1 urtekoentzat 3 unitateko eta 1-2 urtekoentzat 6 unitateko edukiera izango duena. Haurreskola horrek gaur egun Antiguako Udal Haur eskolan eta Landetxe haurreskolan eskolatuta dauden umeak hartuko ditu. Lan hori 2011ko irailerako bukatuko da gutxi gorabehera.
- Intxaurrondo auzoan, Txara kultura-etxearen goiko solairuan, haurreskola sortzea, 0-1 urtekoentzako unitate baterako eta 1-2 urtekoentzako 3 unitaterako edukiera izango duena. Lan hori 2012ko irailerako bukatuko da gutxi gorabehera.
- Loiolako Erriberetan eraikitzen ari diren ikastola berria bukatu, eta bertara Ikasbide Ikastola joaten denean, Amara auzoa bere osotasunean harturik gainbegiratuko da, ea nola geratzen den hezkuntza publikoko eta bereziki 0-2 urte bitartekoentzako eskeintza, eta ondoren plangintza proposamen bat egingo da.

Epe ertainean, eskaintzarik gabeko hiri-eremu guztietan, baita hirigintza-interbentzio berriak aurreikusita dauden hiri-eremuetan ere, haurreskolak sortzeko konpromisoa dago.

- Amara auzoko Loiolako Erriberetan, kirol-eremuaren bukaeran dagoen eta Ikasbide LHI ikastetxe berritik gertu dagoen kirol-hornikuntzarako lursail batean

haurreskola sortzea, 0-1 urtekoentzako 2 unitaterako eta 1-2 urtekoentzako 2 unitaterako edukiera izango duena.

- Morlans berrian, babes ofizialeko etxebizitzetako beheetan, haurreskola sortzea, 0-1 urtekoentzako unitate baterako eta 1-2 urtekoentzako 3 unitaterako edukiera izango duena.
- Altza auzoan, antzinako Nerecan eremuko etxe berrietan haurreskola sortzea, 0-1 urtekoentzako 2 unitaterako eta 1-2 urtekoentzako 3 unitaterako edukiera izango duena. Haurreskola honek Altzako Roteta haurreskolan eskolatuta dauden haurrak (55 plaza: 0-1 urtekoentzat 16 eta 1-2 urtekoentzat 39) hartuko ditu.
- Gros auzoan, Manteon, Nafarroa hiribide eta Rodil zeharbidearen artean, aurreikuspenen arabera eraikiko den hornikuntza-eremuan, haurreskola sortzea, 0-1 urtekoentzako unitate baterako eta 1-2 urtekoentzako 3 unitaterako edukiera izango duena.
- Auditz-Akularren eta Antondegin aurreikuspenen arabera eraikiko diren hiri-hedapen berrietan haurreskola sortzea.
- Herrera-Larratxon eta Amara Zaharrean haurreskola sortzea, eskakizunaren bilakaerak baldintzatuta.

Hirugarrena.- Haurreskolak Partzuergoan 0 eta 2 urte bitartekoentzako Udal Haur eskolak sartzea

Donostiako Udaleko gaur egungo Haur Eskolak Haurreskolak Partzuergoan sartzeari jarraian aipatzen diren epeetan ekingo zaio:

- Egungo Prim HHUE Haurreskolak Partzuergoan sartuko da, 2010eko irailetik hasita, baina egungo lokaletan jarraituko du Urbietako haurreskola sortu arte.

- Egungo Antigua HHUE Haurreskolak Partzuergoan sartuko da, 2010eko irailetik hasita, baina egungo lokaletan jarraituko du Montpellierreko haurreskola sortu arte.

Udaleko haur eskola horiek aplikagarri den araudian ezarritako baldintzak betez sartuko dira Haurreskolak Partzuergoan.

Alde horretatik, alderdi biek beren gain udaleko haur-eskola horien kudeaketa hartzearen aldeko erabaki adierazia hartzen dute.

Haurreskolak Partzuergoak udaleko haur-eskola horien kudeaketa bere gain hartu eta, horren ondorioz, Donostiako Udalak bete ez duen zerbaitengatik erantzule solidario edo subsidiario izatea gertatzen bada, udal hori izango da, Haurreskolak Partzuergoa izango balitz bezala, erantzukizun horren eraginen ardura (edozein izanda ere eragin horien norainoko eta izaera) bere gain hartuko duena.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Haurreskolak

Laugarrena.- Jarraipen-batzordea eratzea.

Protokolo honen jarraipena egiteko batzorde bat eratuko da, lau ordezkarik osatuta egongo dena: bi Haurreskolak Partzuergoarenak izango dira eta beste bi Donostiako Udaleko hezkuntza-arloarenak. Protokoloa sinatzen duten alderdiek izendatuko dituzte ordezkari horiek, eta horien egitekoak honako hauek izango dira:

a) Aurreikusitako konpromisoen jarraipena egitea, behar bezala betetzen diren jakiteko, eta elkarri informazioa emateko eta konpromisoak egoki betetzeko irizpideak eta moduak finkatzea.
b) Kasu bakoitzean eskatzen diren izapideak bizkortzea zailtzen duten oztopoak baztertzeko erraztasunak ematea.
c) Protokoloa interpretatzeko eta betetzeko orduan izan daitezkeen arazoak konpontzen saiatzea.

d) 2012ko iraila baino lehen, eta akordioaren garapena oro har ebaluatu eta beharrizan berriak baloratu eta gero, akordio gehiago sinatzeko proposamen berriak egingo ditu. Proposamen horietan denbora-banaketa zehatzak egingo dira, epe ertainera haurreskolak sortzeko konpromisoak direla eta.

Jarduketen garapen egokirako komeni den bakoitzean bilduko da batzordea, eta orduan aplikagarri izango zaio kide anitzeko organoen araubidea, hau da, Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean, II. tituluan, II. kapituluan araututa dagoena.

Eta adostasun eta fede onaren froga bezala, honako agiri hau sinatzen dute, laukoiztuta, idazpuruan aipatutako toki eta egunean.

Haurreskolak Partzuergoko burua
Mª ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ

Donostiako Udaleko alkate-buru jauna
ODÓN ELORZA GONZÁLEZ